

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko uztailaren 8a. VIII. urtea. 2.258. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Abarlotz Olano Musikaria

«Musikan nire gisara hasi nintzen, gitarra akustikoarekin eta armonikarekin»

Gau Giro ekimenaren barruan kontzertua eskainiko du gaur Plaza Berrian **o3**



Zaldibiako kantaria gaur izango da Tolosan. HITZA

Ziklox Garaialde taldearen kantak grabatu dituzte

‘Urteak ez dira alferrik pasatzen 1986-2011’ izeneko diskoa kaleratu dute Xabi eta Iñaki Navarrok, 80. hamarkada amaierako Alegiako talde mitikoaren bi kidek **o5**



→ **Sanfermin, gurean.** Zuriz eta gorritz jantzi zen atzokoan Tolosako Alde Zaharra. Bertako bizilagunek, urteroko moduan, San Fermin Txiki antolatu zuten, eta txupinazoa bota eta gero, entzierroa ere egin zuten. **o2**

A. MITZ


www.funerariavascongada.com

Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA

24 H..
943 694 873





Haurreskolakoek ere bat egin zuten sanferminekin. A. IMAZ

Alde Zaharreko sanferminak ospatu dituzte plaza Berrian, entzierro eta guzti

12:00etan jaurtiki dute suziria, eta txokolate jatearekin amaitu da aurtengo ospakizuna

Asier Imaz Tolosa

Herenegun Iruran egin bezala, atzo Tolosan ospatu zituzten sanferminak, zehatz-mehatz, Alde Zaharreko sanferminak. Txupinazoa 12:00etan jaurti zuten zerura, plaza Berriko kioskotik. Ondoren, goxokiak eta puzgarriak bota zituzten bertara gerturatu ziren haurren gozamenerako. Iskanbila ordea, buruhandiekin eta entzierro txikiko zezenekin etorri zen. Azkenik, Alde Zaharreko sanferminak agurtzeko, txokolate jatea egin zuten.



Txupinazoaren piztu aurreko unea. A. IMAZ

Euskal Herriko txapelketan hamabi domina

Tolosaldea Igeri Kirol Taldeko zazpi igerilari estatu mailako txapelketan egongo dira

Txema Zumarraga Tolosa

Euskal Herriko Udako Igeriketa Txapelketa jokatu zen Gasteizen, junior eta absolutu mailan. Tolosaldea Igeri Kirol Taldeko 13 igerilari egon ziren bertan. 50 metroko igerilekuan jokatu ziren lehiak eta eskualdekoek 12 domina lortu zituzten: lau urrezko, lau zilarrezko eta lau brontzezko.

Junior mailan, Marta Alonso urrezko dominarekin itzuli zen etxera. Tolosaldeako igerilaria Euskal Herriko txapelketa gelditu zen 50 eta 100 metro tximeletan, eta 100 metro bizkar estiloan. Iñaki Carrerak lortu zuen beste urrezko domina, 200 metro bizkar estiloan. Horrez gain, estatu mailarako gutxiengo denbora lortu

zuen 200 estilotan, 2:36ko denborekin. Olaia Cuadrado zilarrezko domina lortu zuen, Zuriñe del Pozok bezala. Maria Mansok, David Rodriguezek, Iban Gabirondok, Iñigo Pradak eta Alai Ormazabalak ere lan txukuna egin zuten.

Absolutuetan, Pablo Uzkudunek urrezko domina lortu zuen 100 bizkar estiloan. 50 eta 200 metroan, bigarren postua lortu zuen Tolosaldeako igerilariak. Iosu Carrera Euskal Herriko txapelketa gelditu zuen, 400 metro estiletan. Irati Ibarbia eta Eñaut Vazquez ere Gasteizen izan ziren.

Estatu mailako txapelketa

Mallorcan jokatu dira junior mailako txapelketak, eta Tolosaldea IKTko bost igerilari egongo dira bertan: Marta Alonso, Olaia Cuadrado, Zuriñe del Pozo, Maria Manso eta Iñaki Carrera.

Absolutuetako txapelketak Mataron lehiatu dira. Bertan, Pablo Uzkudun eta Iosu Carrera egongo dira.



Tolosaldea IKTko igerilariak Gasteizen. HITZA

→ Laburrak

Aldaban, euskal artzainei buruzko dokumentala

TOLOSA › Aldaban Ameriketarako joandako euskal artzainei buruzko dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur, 19:00etan, Intxur auzo elkarte-an.

Jaietako programarako marrazki lehiaketa

BERROBI › Jaietako programan agertuko den marrazkia zein izango den jakiteko, haurren artean lehiaketa antolatuko dute. Lanak uztailaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira.

Hasi da Tolosa CFren Paleta Txapelketa

TOLOSA › Herenegun, hilaren 6an, hasi zen Tolosa CFek antolatzen duen Paleta Txapelketa, aurtengoa 43. edizioa da, gainera. Gaur, bi partida egongo dira Berazubiko pilotalekuan: Niko-Txepek Errasti-Galarra-aren aurka jokatu dute, eta Bengoa-Maiza bikoteak Ormazabal eta Muñoaren aurka jokatu dute. Hurrengo jardunaldia astelehenean izango da, eta hiru partida jokatu dira. Hiru lehia dauden jardunaldietan, partidak 18:30ean hasiko dira, eta bi partida jokoan daudenean, 19:00etan. Partidak 30 tontora jokatu dira, eta bikote batek kale eginez gero, partida galdutzat emango zaio 30-Oeko markagailuarekin.

Bar - Restaurante - Jaietara

ASTELENA

Udarako denboraldiari hasiera ematen diogu terrazarekin batera:

- Plater konbinatuak
- Asteburuko menua
- Karta

Euskal Herria, 4 • TOLOSA
943 65 09 96
www.astelena.com

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



HITZA

Abarlotz Olanok o Musikaria

Zaldibian jaio zen, eta txikitatik sentitu izan du musika. Gaur gauean, Gau Giroko egitaraua irekiko du Plaza Berrian eskainiko duen kontzertuarekin.

«Zerbait ikustean, ikusitakoa sentitzea da bizitza»

Itzea Urkizu

Abarlotz Olanok (Zaldibia, 1980), *Antilla* izeneko bere lehen diskoa kaleratu berri du. Michel Ducauren elkarlanean aritu da diska osatzeko, eta ekoizle lanetan ere aritu da. Musikari handiak izango ditu alboan, gaur 22:30ean Plaza Berrian eskainiko duen kontzertuan. Tartean, Iker Piris tolosarra ere izango da, gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa eta mandolina jotzen.

Noiz izan zenuen lehen kontaktua musikarekin?

Nire osaba Zaldibiako *Xapre* soinu-jolea da, eta txiki-txikitatik hark ibili izan nau hara eta hona. Berarekin ibiltzen nintzen arren, ikusten nuen nire musika, trikitia baino gehiago, orain lantzen dudana estilo hau zela: folka, gitarra eta armonikarekin. Horrela hasi nintzen musikan, nire gisara, nire gitarra akustikoarekin eta armonikarekin.

Musika ogibide izan nahi al zenuen txikitatik?

Azken finean, barrutik ateratzen zaizun zerbait da: abestiak, sentimendu horiek... Askotan ez duzu uste hortik biziko zarenik, ezta gutxiago ere. Baina hortik ere bizi liteke; arnasa hartuta bizi baldin bagara, zergatik ez musikatik?

Eta zergatik aukeratu zenuen hain zuzen ere musika gaztetxo zinenean?

Ikusten nituen momentuko abes-

lariak: Benito Lertxundi, Niko Etxart, eta halako jendea. Beren gitarrarekin ikusten nituenean, gitarra soinu hark sentimentu handi bat sortzen zidan, asko eragiten zidan, barruan zerbait banu bezala. Musika sentitzen nuen.

Beraz, aipatu berri dizkidazu musikariak izan dira zure erreferente.

Bai, ikaragarri gustatzen zaizkit. Gero, pixkanaka Bruce Springsteen, Bob Dylan eta antzekoak ere entzuten hasi nintzen. Halako zirrara bat sortzen zidaten, eta asko bete izan nau euren musikak.

Zure lehen diskoak *Antilla* du izena.

Nondik datorkio izen hau lanari? *Antilla* abere bat zen, behor bat, eta berari eskaini diot diska. Ni txikia nintzela, aitarekin Lasarte aldera joan nintzen, eta abere bat ikusi nuen. Pertsonak maitemintzen direnean bezala, gauza oso indartsu bat sentitu nuen; ez zen maitemina izan, baina bera nirean izan, eta ni berea ere bai. Animal

harekin sekulako lotura sortu zen. Zaharra zen jada, eta ez zegoen oso ondo zainduta, eta aitak duen baserrira eraman genuen. Iruditzen zait bera sendatu nahi horrekin, berak sendatu nauela ni. Niretzat oso animalia berezia izan da, asko maite nuena; askotan animalia batek eman diezazuke, pertsona askok eman ezin dituzten hori. Horregatik iruditzen zait, animalien izakera berezi hori guretzat oso garrantzitsua dela.

Taldekideen artean goi mailako musikariak dituzu. Ezagunenetakoa, Michel Ducau izango da; diska berarekin elkarlanean egin duzu. Nola ezagutu zenuen elkar? Nolatan hasi zinen berarekin lanean?

Lehen esan bezala, osabarekin Iparraldean askotan izan nintzen, eta behin Michel ikusi nuen musikajotzen. Zera pentsatu nuen: «nirekin antzekotasunak baditu gizon honek». Egun batez berarekin

harremanetan jarri nintzen, nik nuen maketa bat entzun zuen, eta gustatu egin zitzaion. Horrelaxe hasi ginen, eta orain aita-emeak bezala gara, izugarri maite dut Michel, eta berak ni ere bai. Nik behar handi bat izan dudana momentuoro, bera hor egon da, eta hori beti eskertuko diot.

Zein izan da Michel Ducauren aporterazioa diska honetan?

Berak ekoizle lanak egin ditu, eta abestietako konponketak ere bai. Hor ibili diren musikari guztiei ere asko lagundu die; bere aldetik asko jartzen du eta iritziak elkartrukatzeko ditu lan egiteko moduari dagokionez.

Diska entzuten duen jendeak, eta batez ere, gaurko kontzertura bertaratzeko duen jendeak, zer nolako doinuak entzungo ditu?

Egia bihotzez esan behar badut,

diskakoa baino askoz ere indartsuagoa eta politagoa da zuzeneko, zalantzarik gabe. Egiten dugun musika euskal folkloarean sustraieetatik oso gertu dagoela iruditzen zait, eta rock puntu bat ere badu; honek bere indarra ematen dio. Gero, pare bat balada ere badit. Uste dut esanahi polita dutela, eta merezi duela kantu hauek entzuteak.

Abestien hitzak zuk sortzen al dituzu? Nolako da prozesu hori?

Nire lehen abestia *Txori txiki bat naiz* izan zen. Nire aitarekin-eta nengoan egun batean, aurrez aurre txori bat zebilen hegaka, eta harrিতa geratu nintzen, nire aurrean zebilen moduatik. Liluratu utzi ninduen, eta zerbait esan nahi izan zidala pentsatu nuen. Idazten hasi nintzen, eta txori hark niri esan nahi izan zizkidan haiek izan ziren nire lehen lerroak. Orain txori batek abesten didan bezala, bizitzak egoera desberdinak eskaintzen ditu. Oso garrantzitsua iruditzen zait zerbait egiteko arreta ematen diguten gauzak adieraztea. Tolosan abestuko dudana lehen abestia, adibidez, eskale bati buruzkoa izango da, eta ez du etxebizitzarik. Hamaika pertsonak eman ez didaten sentimendua eman dit eskale horrek. Etorrinei ere eskaini diet beste kantu bat. Nolabaiteko lilura hori sentiarazi didaten gaiez aritzen naiz kantuetan, eta bizitza hori dela uste dut: ikustean sentitzea.

Musikaren munduan txoko bat egitea ez da erraza. Baten batek pentsa lezake, gainera, musika euskaraz eginda are zailagoa dela. Zuk hala ere, euskara aukeratu duzu. Zalan-tzarik izan al zenuen hizkuntza aukeratzekoan?

Ez, inola ere ez. Ziur naiz jende asko dagoela euskara ikasi nahiean, eta Euskal Herriko seme batek lehendabizi euskaraz abestu behar duela uste dut nik. Izan ere, euskaldunok euskara gure ama hizkuntza izateko saria jaso dugu, eta altxor bat dela uste dut. Nire kontzientzian hau argi eta garbi daukat, eta lehendabizi euskalduna naiz. Ez ditut inola ere baztertzen, ez gaztelera, ez ingeleza, ez japoniera... Baina nire nortasuna euskalduna da, eta bengan, bihotzetik, euskaraz abesten dut.

o tolosa@hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan. Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, kumuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garaieja, txokoa eta jardina. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

LANA

■ **Garbitzailea.** Astelehenetik ostiralera, emakume euskalduna behar dugu, adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesa dutenek, dei dezatela 686 48 45 72 telefono zenbakira.



TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK

Laskorain Ikastola

LANGILE BAT BEHAR DU

• Psikomotrizitate ikasketak egin dituen eta majisteritzan diplomaduna

Derrigorrezkoa: EGA titulua
Curriculumak e-mailez bidali behar dira
tolosa@ikastola.net helbidera.
Jasoko diren azken eguna, **uztailaren 13a**

San Migel plazan sartu ahal izateko baimenak eskatu behar dira

Plazara sartzeko eta bertan aparkatzeko baimena behar dutenek eskaera orria bete behar dute udal bulegoetan

E. Maiz Irura

San Migel plazako trafikoa kontrolatzeko Irurako Udalak obrak egin ditu. Guztia prest dago, baina bertara sartu ahal izateko, eta bertan aparkatzeko baimenak

antolatzea geratzen da. San Migel plazako eremuan bizi direnek edota lokala, aktibitatea,... dutenek, udaletxean eskaera egin behar dute baimen hauek eskuratu ahal izateko.

Eskaera idatziz egin beharko da eta ereduua udal bulegoetan aurkituko dute. Era berean, eskaerarekin batera, ibilgailuen dokumentazioaren kopia eta bertan bizi edota lokal edo aktibitatearen jabe direla frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko diote eskaerari.

Futbolearen jolastu nahi duten neska-mutilek izena eman dezakete

Billabona Futbol Kirol Elkarteak Aldundiaren baimena jaso du eskola izateko; izen-emate zabaldu dute

E. Maiz Villabona

Billabona Futbol Kirol Elkarteak aurreko astean jaso zuen Aldundiaren baimena 2011-2012 denboraldian futbol eskola eraiki ahal izateko. Hau dela eta, hurrengo

denboraldiari begira futbol eskolan apuntatzeko epea irekiko du 2000, 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Izen ematea egiteko liburutegiko goiko balio anitza duen gelan egongo dira. Hilaren 11, 12, 13 eta 14ean 18:30etik 20:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero billabonafke@yahoo.es posta elektronikora mezu bat bidali daiteke, edo bestela 676 31 79 45 telefono zenbakira deituz arduradunekin harremanetan jarri daiteke.

→ Laburrak

Udako ekintzetan izena emateko aukera dago

ARESO › Udako ekintzetan izena emateko aukera zabalik dago. Astelehenerdik abuztuaren 5a bitartean izango dira 11:00etatik 13:00etara. Kirolak, eskulanak, irteerak,... egingo dituzte. Guraso Elkarteokekin jarri behar da harremanetan.

Gaur jokatu dira Pilota Txapelketako partidak

ALEGIA › Alegiako I. Pilota Txapelketako finalaurdenak jokatu dira gaur 21:30etik aurrera Alegiako pilotalekuan. Jubenilen mailan, Artola eta Rezusta bikotea, Gallurralde eta Tolosaren aurka ariko dira, eta nagusien mailan, Santxo eta Gorrotxategi bikoteak, Ezkurdia eta Telletxearen aurka jokatu dute. Finalak, herriko festetan jokatu dituzte, hilaren 15ean, 22:30etik aurrera.

Azterkosta erakusketa ikusgai dago udaletxean

LARRAUL › Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak itsasbazterren berezitasunen ezagupena bultzatzeko Azterkosta izeneko erakusketa mugikor bat antolatu du. Erakusketa hau zortzi panelez osatua dago, eta Larraulen egongo da ikusgai udaletxeko sarreran. Gaur, hilak 8 eta astelehenean, hilak 11, 09:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

‘Txuri’ren heriotzarekin, Pello Mari Otañoren azken arnasetako bat itzali da

Argentinan bizi zen Otañoren biloba Susana Ardanaz ‘Txuri’ igandean hil zen; iaz Zizurkilen izan zen

Eneritz Maiz Zizurkil

Pello Mari Otaño zizurkildarraren biloba zen Susana Ardanaz *Txuri*. Argentinan bizi zen azken bilobetako bat zen, eta igandean hil zen bere etxean 82 urte zituela. Iaz bete ziren 100 urte Pello Mari Otaño hil zela, eta bizirik zeuden bere bi bilobak, hau da, Susana Ardanaz eta Amelia Otaño Zizurkilen izan ziren.

Hernandorena Kultur Elkarteak eta udalak, Maiatza Saltsan berezia prestatu zuten Otaño bertsolariaren heriotzaren 100. urteurrena ospatzen zela eta. Liburu bat argitaratzeaz gain, hainbat ekitaldi egin zituzten herriaren zehar. Maiatzaren 7an herriko Seme Kuttun izendatu zuten udaletxean egindako osoko bilkuran. Adinean aurrera joanda egonagatik ere, ez zuten hutsik egin nahi izan eta bertan izan ziren bi bilobak. Ekitaldi askotan hartu zuten parte. Beraien aitona-amonen herriak egin ziren harrekarrekin, gustura sentitu ziren.



Susana Ardanaz eta Amelia Otaño orroigarria jasotzen. E. MAIZ

Hernandorena Kultur Elkarteak kideek, oso baliagarri izan zituzten, batik bat, Susana Ardanaz *Txuri* kontakuko istorio eta lekukotzak. Pello Mari Otaño herriarraren Argentinako ibilbidearen eta bizimoduaren berri jartzeko baliatu zuten. Astelehenean ordea, Susana Ardanaz heriotzaren berri jaso zuten zizurkildarrek.

Heriotza honekin, Pello Mari Otañoren azken arnasetako bat itzali da. Orain, Mexikon bizi den Amelia Otañoren argia baino ez da geratuko, zizurkildarren bihotzetan.



Susana Ardanaz, 'Txuri'. A. ALTUNA

HITZAren itzaletik ibiltzeko...

Egin harpidedun **uztailaren 29a** baino lehen eta jaso eguzkitako hau opari

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

txindokiko itzala

Abentura Parkea

ANIMA ZAITEZ!

Larraitz
628 947 253

Artisau Jogurtak

Mahala

Ziklox Garaialde talde alegiarrak bi urte iraun zuen, 1986tik 1987ra. Ez zuten grabaziorik utzi, eta hori konpondu nahi izan dute bi taldekidek, Xabi eta Iñaki Navarro anaiek, disko bat kaleratuz.

Duela 25 urteko giroa gogoan

Imanol Garcia Alegia

Hutsune bat betetzeko asmotan, Xabi eta Iñaki Navarrok Ziklox Garaialde taldearen kantuekin diskoa kaleratu berri dute, *Urteak ez dira alferrik pasatzen 1986-2011* izenekoa. Bete nahi den hutsuneak bi alde ditu. Batetik, taldearen abestiak entzungai uztea, ez baitzuten bere garaian ezer grabatuta utzi. Bestetik, garai haietako giroa eta taldekideek zituzten kezken berri ematea.

25 urte igaro dira lau gazte alegiarrek musika taldea sortu zutela: Iñaki Navarro (gitarra eta koroak), Xabi Navarro (bateria eta koroak), Jose Manuel Garmendia *Piti* (ahotsa eta turuta) eta Paulo Garaialde (baxua eta koroak). Azken honen aitaren lokal batean, Kalebeheran, elkartzen ziren entseguak egiteko. Ciclos Garaialde errotulua zuen lokalak eta taldearen lehen kontzertua eman behar zutenean, Txaramako gaztetxean, izen bat jarri behar ziotela eta lokalak zuena jarri zioten, taldekideek bere ukitua emanez.

Urte pare bat iraun zituen taldeak. «Guri iruditzen zaigu orain denbora asko izan zela, oso intentsok izan baitziren bi urte horiek», esan du Xabi Navarrok. «Urte oso biziak ziren. Mugimendu pila bat zegoen, talde asko... Kontzertuak ez ziren hainbeste izaten, baina kontzertu bakoitzean jende asko izaten zen, oso intentsok ziren».

Festagunea bulebarrean

Hiltegi zaharrean hasi zen taldea mamitzen. Alegiako gazte batzuk hiltegi gilda lortu zuten eta musika instrumentu batzuk zeuzkaten. Navarro anaia probatzen hasi ziren eta talde bat egin behar zutela pentsatu zuten.



Ziklox Garaialde taldea 1987an Andoaingo gaztetxean emandako kontzertu batean. HITZA



Xabi eta Iñaki Navarro, Ziklox Garaialde taldeak entseguak egiteko erabiltzen zuten lokalaren aurrean. I.GARCIA

Piti konbentzitu zuten abeslaria izateko eta Kalebeherako lokala erabiltzen hasi ziren. Hasieran, hiltegi biltzen zirenen materiala erabiltzen zuten. Baina beraien materiala izan nahi zuten eta 1986ko herriko festetan, bulebarrean barra bat jarri zuten eta ekitaldiak antolatuta, dirua ateratzeko taldearentzat. «Oso ondo aterazen», dio Xabik. «Jendeak gurekin bat egin zuen eta jende pila ibili zen handik». Lortutako diruarekin musika tresnak erosi zituzten. Hurrengo urtean ere an-

tolatu zuten taldearen aldeko txosna. 1988an, gaztetxea sortu berritan, Ziklox Garaialderen aldeko festa gunerik jarraipena emanaz, lehenengo Festa Alternatiboak antolatu ziren.

Musika mota asko entzuten zuten: «Trikitia, punka, ska... Berridin entzuten genuen Laja ta Landaka eta The Clash», diote. Azken talde hori izan zen eragin handienetakoa izan zuena taldean, Iñakik gogoratzen duenez. Sasoi horietako taldeak Hertzainak, Cicatriz, BAP, Kortatu, Tortura

Sistematika,... ziren. «Gaurko gazteek teknika handia dute», diote, «baina bizitasuna galdu dute. Gu oso txarrak ginen musikari gisa, baina gure kontzertuetan jendeak erruz dantza egiten zuten». Iñakik gaineratzen duenez, musikazaleek «beste motibazioa bat izaten zuten. Aldaketa handia izan zen garai hartan. Kontzertuak astebururoko kontzertuak izaten ziren».

Berrogei kontzertu inguru jo zituen taldeak iraun zuen bi urte horietan. Gaztetxeetan jotzen zi-

tuzten batez ere kontzertuak. «Toki askotatik deitzen ziguten eta kontzertu ginen gure maila hobetu behar genuela», diote. «Taldea sortzearena dibertsio gisa, borrokatzeko modu gisa hartu genuen. Maila hobetzeko entsegu gehiago egitea suposatzen zuten, eta tira birak hasi ziren taldean. Ikusi genuen horregatik ez genuela gure adiskidetasuna galduko. Eta taldea bertan behera uztea erabaki zuten».

Diskoa grabatzeko, laguntza

Xabik Amoroton duen Musikorta estudioan grabatu dute diskoa. Bateria eta ahotsa Xabik jarri ditu, eta gitarra eta baxua Iñakik. Grabazioan Manillares Iturriaga Alegiako taldeko kideen laguntza izan dute. Talde honek bere kontzertuetan Ziklox Garaialderen zenbait abesti jo ohi ditu. Diskoa eskuratu nahi duenak, Alegiako zein eskualdeko zenbait tabernetan salgai dago.

Navarro anaiek garbi dute ez dutela berriro taldea berpiztuko. Batez ere, Paulo Garaialde 1995an zendu zelako eta bera gabe taldeak ez zuelako zentzurik izango. Hori bai, Manillares Iturriaga taldearen kontzerturen batean parte hartzea ez dute bazterten.

Urteurrena

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



BIGARREN URTEBETETZEA

JOXE SAROBE LASARTE jauna

2009ko uztailaren 12an hil zen

Oroituko zaitugu basoan, errekan, itsas bazterrean... Zureganako biderik ederrenean ETXEKOAK

Etxeokoez guztioi jakinarazten dizuzte oroitza penza meza BIHAR izango dela, arratsaldeko ZORTZIETAN, Zarauzko SAN PELAIKOKO ELIZAN.

ZARAUZ, 2011ko uztailaren 8a



Ibarrako Udaleko alkate eta zinegotziak, asteazken iluntzeko ohiko bilkuran. M.UGARTEMENDIA

Bederatzi batzorde informatibok osatuko dute udala 2011-15 legealdian

Ibarrako alkatearen soldatak %23ko jaitsiera izango du; zinegotziak, berriz, %30ekoa izango dute

M. Ugartemendia Ibarra

Arazo tekniko batzuenatik atzerapenarekin hasi bazen ere, asteazken iluntzean egin zen Ibarrako Udalean 2011-15 legealdiko bigarren bilkura; lehena alkatea izendatzeko izan zen.

Bilkuran Jesus Peñagarikano alkatea, hemendik aurrera ohiko bilkurak «hilabetean behin» egitea proposatu zuen. Bilkura horiek, «hileko azken asteartean izango dira, 19:30ean». Ezohikoak, berriz, «beharrezkoa denean» egingo dituzte.

Urtean zehar egingo dituzten bilkuren berri eman ondoren, Peñagarikanok legealdian udala osatuko duten batzordeen berri eman zuen. Guztira bederatzi batzorde informatibo izango dira legealdi honetan; guztietan Bildu

koalizioko zinegotziak izango dira batzordeburuak, eta oraingoz beste bi kideekin osatuko dituzte batzordeak. Bi kide horietako bat Bilduko eta EAJkoak besteak. Batzorde hauek iraunkorrak izango dira, hau da, bi astean behin elkartzeko dira; hirigintza-ko batzordea astean behin elkartzeko da. Horrez gain, kide anitzeko organoen udal ordezkaririk ezin izango diren ere azaldu zuten; Euskal Fonda, Hiltegia, Mankomunitatea, Tolomedi...

Lehenengo alkateordea Iñaki Mujika izango da eta bigarrena Oihane Sarasola. Ibarra 5.000 biztanletik beherako herria izan arren, alkateak Gobernu Batzorde bat osatzea ere proposatu zuen; kideak alkatea eta alkateordeak izango dira. Batzordea «izaire irakikoa» izango da.

Ordainsarien murrizketa

Legealdi honetan alkatearen soldatak %23ko jaitsiera izango du. Zinegotzi bakoitzeko ordainsaria 135 eurokoa izango da, hau da, %30eko jaitsiera izango du. Alderdi bakoitzari, berriz, 175 euro

emango zaizkio, hauek ere %30eko jaitsiera jasango dute. Batzorde buruak hilean 170 euroko ordainsaria jasoko dute, eta gobernu batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasoko.

↓ Batzordeak

2011-15 LEGEALDIA

- **Emakumea eta migrazioa.** Naiara Lopetegui (Bildu).
- **Euskara eta hezkuntza.** Laida Zubillaga (Bildu).
- **Gazteria eta kirola.** Mikel Agirrezabala (Bildu).
- **Gizarte zerbitzuak.** Oihane Sarasola (Bildu).
- **Hirigintza.** Jesus Peñagarikano (Bildu).
- **Ingurumena, merkataritza eta nekazaritza.** Itziar Saizar (Bildu).
- **Kultura.** Eugenio Lopetegui (Bildu).
- **Obrak eta zerbitzuak.** Iñaki Mujika (Bildu).
- **Ogasuna eta pertsonala.** Jesus Peñagarikano (Bildu).

Eskualdeko lau segalari Euskadiko Segatxapelketan

Finala igande honetan jokatu da, Oartzunen, 12:00etatik aurrera; sarrera 15 euro kostako da

M. Ugartemendia

Igande honetan, hilaren 10ean, jokatu da Euskadiko Segatxapelketako finala Oartzunen. Eta, bertan parte hartuko duten lau segalariak Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak dira: Juanjoxe Lizaso (Asteasu, 50 urte), Mikel Alkorta (Asteasu, 40 urte), Arkaitz Arteaga (Baliarrain, 26 urte), Jon Kanflanka (Leitza, 30 urte). Finala ikusi nahi duenak 15 euroko sarrera ordaindu beharko du.

Esan bezala, Oartzunen izango da Pikoketako belardi edo sorotan, Aiako Harrien magalean. Finala 12:00etan hasiko da. Bertan ordu beteko lana egin beharko dute lau segalariak, eta ahalik eta belar kilo gehien ebaki beharko

dituzte, txukuntasuna ere aintzat hartuko delarik.

Lizasok bigarren finala jokatu du, eta txapel bat du irabazia. Aurten Gipuzkoako Txapelketa irabazi du.

Alkortak ere bigarren finala jokatu du. Aurten txapelketaordea izan da Gipuzkoako Txapelketa.

Arteagari dagokionez, hirugarren finala jokatu du eta txapel bat du. Aurten jardunean, laugarren izan da Gipuzkoako Txapelketa.

Jon Kanflanka da lau segalarietatik final gehien jokatu dituenen. Hain zuzen ere, igandekoa laugarrena izango du. Iazko finalean txapelketaordea izan zen. Aurten Nafarroako Txapelketa jokatu du ez den arren, iaz txapelketaordea izan zen.

Aipaturiko lau finalistek joan zen larunbatean lortu zuten finalerako txartela. Final polita eta interesgarria ikusteko aukera izango da, beraz, igande honetan Oartzunen.



Jon Kanflankak iazko finalean bigarren postua eskuratu zuen. HITZA

Bengoetxea da Nafarroako lau t'erdiko txapelkun berria

22-10 irabazi zuen leitzarrek; sakez zortzi tanto eginda, partida erraz irabaztea lortu zuen

M.U. Leitza

Oinatz Bengoetxeak erraz irabazi zuen Martinez de Irujoen aurka jokatuako finala. Atzo eguerdian Iruñeako Labrit pilotalekua

pilotazalez beteta zegoen. Udako txapelketen artean garrantzi handiena duena da San Ferminetako, eta pilotazaleak final on bat ikusteko gogoz bildu ziren pilotalekuan, baina, azkenean final kaxkar bat ikusita itzuli ziren festara. 138 pilotakada, soilik, izan zituen partidak, eta ordu erdiko iraupena izan zuen.

Partidaren hasieran bi pilotari tantoak galduz hasi ziren arren, leitzarrek konfiantza hartzen joan zen pixkana eta azkene-

an, 22-10 irabazi zion Iberokoari. Martinez de Irujok ez zuen bere egunik onena izan atzokoa, eta Bengoetxeak horri etekina ateratzen jakin zuen. Bederatziak berdinketaren ostean leitzarrek arriskatu eta irabazi egin zuen. Aurrelariak zortzi tanto egin zituen sakez, eta errematean ere oso ondo aritu zen.

Bengoetxeari orain arte lau t'erdikoa saihestu egin zaion arren, atzokoan garaipen garrantzitsu bat lortu zuen.

Nafarroako Txapelketak San Ferminetan

Sei leitzarrek parte hartuko dute, Iruñean jokatu diren hamar Txapelketatik bostetan

M.U. Leitza

Iruñeako San Ferminetan herri kirol jaialdia izango da egunero; guztira Nafarroako hamar txapelketa jokatu direlarik. Gaurtik hasita egunero izango dira

jaialdiak Foru plazan, 12:00etatik aurrera. Txapelketa hauetan hainbat leitzarrek parte hartuko dute. Gaur, esate baterako, Jose-txo Urrutiak Nafarroako Harri-jasotze Txapelketan parte hartuko du. Igandean, Urrutia eta Bujan Nafarroako Gurdi Txapelketan izango dira. Asteartean, hilaren 12an, Sukuntzak eta Baraibarek Txingia Txapelketan parte hartuko dute. Eta, ostegunean, hilaren 14ean Rizaño eta Olano III. mailako Aizkora Txapelketan ariko dira.

Alkateen elkarrizketak →

Iñaki Amundarain ◊ Amezketako alkatea

«Gogoa eta ilusioa badugu; orain, pixkanaka joan behar»

I. Garcia Amezketaketa

Iñaki Amundarain (Amezketaketa, 1974) lehenengo aldiz aurkeztu da udal hauteskundeetan, eta alkate hautatua izan da. Bilduren zerrendan joan da, eta koalizioak zazpi zinegotzietatik sei lortu ditu.

Nolatan aurkeztu zinen alkate posturako?

Lehen Amezketan hiru talde zeuden. Hauteskundeak iristen ari zirela, aurreko alkateak ez zuela jarraituko esan zuen eta ni aurkezteko esan zidan. Asko aritu nintzen pentsatzen. Gero bi talde Bildu koalizioan elkartu ginen eta beste taldeak onartu ginen zuen ni zerrendaburujoatea.

Zer sentitu zenuen aginte makila eskuetan hartzerakoan?

Momentuan ezer handirik ez. Ardura handia dela ikusten duzu. Hainbeste boto jasota, ikusten duzu jendearen konfiantza baduzula, edo sinesten duela aurkeztu genuen programan. Gero esker-

tzekoa da ere idazkariak eta bere laguntzaileak ematen didaten laguntza udalaren jardunean sartzeko. Bestalde, daukagun taldea gorai patuko nuke. Nahiko maiz biltzen gara, eta betidanik ezagutzen garen jendea gara. Satur Zabalen lana nabarmenduko nuke ere, aurreko legegaldian egon baita eta hainbat kontutan azalpenak ematen dizkigulako. Gogoa badugu, ilusioa ere bai, orain pixkanaka-pixkanaka joan behar dugu.

Espero zenuen horrelako emaitzak lortzea?

Espero genuen irabaztea, baina ez hainbesteko aldearekin. Agian bost zinegotzi lortzea pentsatzen genuen, bi taldeek aurretik lortutakoak batuz, baina ez seigarrenena.

Zer balantze egiten duzu aurreko udalaz?

Oso balantze positiboa. Kultur Etxearen lehenengo fasea bukatu da. Beheran aretoa dago, goran Liburutegia eta beste zerbitzu ba-

tzuk. Oso lan ona egin dute. Orain herri zentroa osatzeko asmoa dugu.

Beraz, legealdi honetan, herri zentroa egokitzea izango da aurrera eramane nahi duzuen asmoetako bat. Beste zer proiektu dituzue esku artean?

Baditugu beste egitasmo batzuk ere. Orain ari gara diru laguntzak lortu nahian, Ergoneko auzoan dagoen Ierabizkar Behekoa errota berrituaren goiko solairuan Fernando Amezketarraren interpretazio zentroa jartzeko. 2014. urtean betetzen dira 250 urte Fernando Amezketarra jaio zela eta urte horretarako egin nahi dugu. Udalak CO2 jaisteko eta kontsumo baxuko argiteria jartzeko hartutako konpromisoa betetzea ere beste asmoetako bat da. Gero, Ugarteiko frontoia zorua nahiko gaizki du eta Amezketakoak kanpoan dituen pertsianak aldatu eta beste horrelako berrikuntza batzuk egin nahi ditugu.

Etxebizitza tasatuen zozketan parte

I. GARCIA

hartzeko deialdi berria ere egin duzue.

Baldintza agiri berria egin beharra genuen, aurrekoaren epea pasatuta baitzegoen. Abuztuaren 8a arte du jendeak izena emateko. Ikusiko dugu ea jendeak izena ematen duen, eta, beraz, etxebizitzak egingo diren. Deialdi honetan izena ematen duenak aurreko baldintza berak izango ditu. Hortik aurrera 15.000 euro garestituko da etxebizitza garestiena.

Nolako izango da udalaren funtzionamendua?

Programaren aurreneko puntua

parte hartzea bultzatzea da. Jendea batzordeetara erakarri eta denon artean erabakiak hartzea da asmoa. Aurreko legealdian ere horrela egiten zen. Batzordeak irekiak ziren eta jende guztia gonbidatuta zegoen, eta oraingoan ere bai.

Festen antolaketan ere ariko zarete dagoeneko.

Bai. Aldaketa egin eta gero hasi ginen. Aste honetan izan dugu bilera, eta egitaraua ia dena osatuta dago. Jende asko etorri da festa batzordeko bilerara, lanerako goiarekin eta ilusioarekin.

Miren Balerdi ◊ Altzoko alkatea

«Nahi dugu eta espero dugu jendearen parte hartzea udalean»

I. Garcia Altzo

Miren Balerdi (Alegia, 1980) da Bildu koalizioarekin Altzoko alkatea. Lehenengo aldiz hartu du kargu bat udalean, eta berak dion bezala, «zuzen zuzenean alkate kargura».

Nolatan suertatu zen alkate kargurako aurkezteak?

Zerrendetan gindoazenez, berdin ziola esaten zen zein postutan joan. Alkategaia falta zen eta zerrendan joan behar genuenez, presio pixka batekin, eta asko pentsatuz, azkenean baiezkota eman genuen.

Zer sentitu zenuen kargua hartzerakoan?

Ardura handia. Jendea begira

egongo da ea zer egiten dugun; nondik hasten garen, nola...

Aurretik zinegotzi izan direnen laguntza izango duzue.

Prest daude edozertan behar izanez gero laguntzeko. Baina ez da kontua aurretik egon direnak udaletik tiraka aritzea. Ea orain gaudenak nola moldatzen garen.

Irabaztea espero zenuen, noski, aurreko zinen beste bi zerrendak PP eta PSE-EE izanik. Halere, zer irakurketa egiten duzu emaitzen inguruan?

Inoiz lortutako emaitzarik onenetakoa lortu dugu azken hauteskunde hauetan. Espero genituen kontrako bozka batzuk eta balio dago jendearen ekarpenetara, guk bilerak egiten ditugunean



I. GARCIA

Jasotako bozka kopuruak babesa ematen dizu.

Zer funtzionamendu izango duzue?

Nahi dugu eta espero dugu jendearen parte hartzea. Festetako batzordea osatuta dago, eta kultur batzordea ere osatuta dago udalaz kanpo. Bakarren bat ere oraindik sortuko da. Beti udaletxea irekita dago jendearen ekarpenetara, guk bilerak egiten ditugunean

jendea etorri daiteke, guri planteamenduak egiteko eskubide guztia du... Modu horretara jendeak pentsatzen duena jakiteko aukera izango genuke.

Gainera, herri txikietan, denak elkar ezagutzen zarete.

Nahiz eta udaletxea ez etorri, kalean ere esaten dizkizute gauzak. Askotan ez da bereizten udaletxe-ko ordutegia eta kalekoa.

Aurreko legealdiaren zer balantze egiten duzu?

Lan asko egin dute. Plan orokorra Diputazioaren onarpenaren zain dago. Guri utzi digute dena aurreratuta. Nik aurreko legealdiaren balantze oso ona egiten dut. Zerbait herri txikietan izan da komentarioa aurreko udalak ez duela ezta herriko festak antolatu, eta hamabost egunetan egin behar izan dutela.

Zer proiektu nagusi dituzue datozen lau urteetarako?

Plan orokorra onartu eta gero, proiektuak aurrera eramateko asmoa dugu. Aparkaleku bat egiteko asmoa dugu Altzo Muinoren sarreran. Diru laguntzak iristen badira, kultur gune bat egiteko asmoa dugu udaletxearen atzean, eta horrekin batera udaletxea beraren irisgarritasuna hobetzea. Komun publikoak ere falta dira. Altzoko erraldoiaren objektuak erakusteko leku bat jarriko genuke.

Kultur gunerako diru laguntzak jasotzeko aukera nola ikusten duzue?

Programa atera da eta orain ikusi behar dugu zer proiektu egiten dugun eta nola baloratzen duten. Hainbat egitasmo proiektu horren baitan kokatzen dira. Beste proiektu bat herriko gazteak herrian gelditzeko etxebizitza tasatuak egitea da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Galiot Teatre talde kataluniarrak gaur eta bihar *Los Titeres* izena duen jolasgunea jarriko du Euskal Herria plazan. Gunea gerturatzaren diren haurrek, Fustot txotxongilo erraldoiarekin egingo dute topo, lehenik eta behin, eta honi besoak eta hankak mugitzeko aukera ere izango dute soka batzuen bidez. Instalazioa era zirkularrean dago antolatuta, eta 12 gela-txo eta 90 txotxongilo inguru ditu. Gelatxo hauetako bakoitzean manipulazio teknikak ezagutu ahal izango dituzte gazte-txoek.



■ **Berastegi.** *Gipuzkoa mendiz mendi, mendez mende* ekimenaren autobusa izango da herriko plazan gaur, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

■ **Ibarra.** *Gipuzkoa mendiz mendi, mendez mende* ekimenaren autobusa izango da herriko plazan bihar, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

■ **Bedaio.** Bihar mendi ibilaldia egingo dute, eta 20:30ean erromeria hasiko da Abaetxe jate-txeko lorategian. Txartelak eskuratzeko 630 11 42 15 (izaskun) telefono zenbakira deitu behar da.

■ **Villabona.** Oinkari dantza taldean izena emateko aukera dago gaur, 18:00etatik 19:30era Liburutegiaren gaineko gelan. 660 13 93 80 telefono zenbakira deituta edo harremanak@oinkari.net helbidera idatzita egin daiteke.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkartek Pirinioetara irteera antolatuta du iganderako. Honako ibilbidea egingo dute: Canfranc-Collarada-Villanua. Larunbatean, 19:00etan, irtengo dira Olaederra kiroldegitik Villanua aldera eta bertan emango dute gaua. Hurrengo

egunean irtendo dira Canfranc alderuntz. Izena emateko 649 717 182-ra deitu behar da 20:00etatik 22:00etara.

KIROLAK

■ **Aduna.** VIII. Transernio Pilota Txapelketako partidak izango dira asteburu honetan. Gaur 18:30etik aurrera ariko dira, eta alebinen txanda izango da: Adunako bikotea Alegia-Altzoren aurka. Bihar, aldis, 10:30etik aurrera, lau partida jokatuko dituzte; bi benjaminenak eta beste bi kadeteenak: Villabona-Añorga, eta Asteasu-Bidegoian, batetik, eta Altzo eta Alegia-Andoain, eta Amezketa-Hernani. Igandean alebinen eta infantilen txanda izango da 10:30etik aurrera: Aduna-Bidegoian, batetik, eta Altzo eta Alegia-Añorga, eta Andoain-Bidegoian, bestetik.

■ **Asteasu.** Santamañako XI. Kros Igoera igandean. 10:30ean irtengo dira, herriari bitzuli eman, eta Santamañara igoko dira. Izena irteera baino ordu bete lehenago eman ahal izango da plazan, edota alde zuzenetik, 943 69 68 96 edo 943 69 34 00 telefono zenbakietara deituta.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Igandean Leidor aretoan *Pequeñas Mentiras sin importancia* izeneko filma 19:30ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean eskainiko dute pelikula bera.

ERAKUSKETAK

■ **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke Kultur Etxean uztailearen 8a bitarte.

■ **Tolosa.** Ikasturtean zehar egon diren kultur tailerretan egindako lanak Aranburu jauregian ikusi daitezke hilaren 9a bitarte.

■ **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak bisitatu daitezke Ekomuseoan, iraila arte.

■ **Tolosa.** Binefarreko titiriteroaren erakusketak Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan urriaren 2a bitarte.

Irailak 30 bitarte udako orduetako erakusketak, hau da, lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, 16:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etan 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 38.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirrara eta exigentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amesteko autoa daukagu,
508 Peugeot berrria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508

